

Gizarteratzearen alde elkarrekin duten proiektua indartu dute hala**EROSKI -K ETA GUREAK TALDEAK BESTE SUPERMERKATU BAT IREKI DUTE OSOKI DESGAITASUNA DUTENEK KUDEATUA**

- Gasteizen ireki dute supermerkatua, eta 14 langile izango ditu
- EROSKI k jarraitzen du desgaitasuna dutenentzako enplegu eredua beste eskualde batzuetara hedatzen GUREAK taldearekin batera, aurreko esperientziak oso baikorrak izan baitira

Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a.- [GUREAK](#) eta [EROSKI](#)k elkarrekin duten proiektua sendotu dute desgaitasunak dituztenak gizarteratu eta laneratzearen alde; elkarrekin ireki dute Gasteizen beste supermerkatu bat, osoki desgaitasuna dutenek kudeatua. Frankizia erako supermerkatua da, eta EROSKI/City du izena. Juana Jugan kaleko hirugarrenean dago, eta 14 langile ditu.

Orain ezaugarri horiek dituen hiru supermerkatu ditu, horietako bi Gasteizen. Lehenengoa Azpeitian ireki zuen, 2015eko urrian. *"Orain hiru urte, berrikuntza sozialeko ekimen aurrendari bat jarri genuen martxan, etorkizunean hedatzeko asmoz. Aurreko esperientziak baikorrak izan direnez, frankizia erako gure denden eredua lehiakorra dela erakusten du horrek, eta gizarteko ekonomiako ekintzaileei, kooperatibei eta enpresei irekia dago. Helburua da enplegua eta aberastasuna sortzea gure ingurunean, eta aurrera egitea enplegu sozialaren dibertsifikazioan. Espero dugu 2019an beste proiektu batzuk beste enpresa batzuekin martxan jartzea desgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeko, Kataluniako Ampansen kasuan bezala. Horrek berresten du nolako konpromiso sendoa duen EROSKI honelako proiektuetan",* esan du EROSKIren Frankizien Saileko zuzendariak, Enrique Martinezek.

GUREAK taldeak Araban duen gerenteak, berriz, Esteban Basterretxeak, honela esan du: *"Enplegagarritasun eredu sendotu bat dugu desgaitasunak dituztenentzat, eta aukera berriak irekitzen ditu premia handiagoak dituztenen garapen pertsonal eta profesionalerako. EROSKIren frankizia ereduak aukera ematen digu jendearekin harremana izanez lan egiteko eta pertsona orok ditugun gaitasunak ikusarazteko".*

Saltoki berriak 420 bat metro koadroko aretoa du, eta marka liderren, marka propioen eta bertako ekoizleen 3.500 produktu saltzen ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du. Bereziki, sasoian sasoiko eta bertako frutena eta barazkiena; eta produktu ekologikoen sorta zabala izango du. Labe

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

propioa ere badu supermerkatuak, okintzako produktu egin berriak egunero izateko.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak; horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide ditu.

GUREAK taldeari buruz

GUREAK enpresa talde bat da, zeinaren xedea baita desgaitasuna dutenei lan aukerak sorraraztea eta kudeatzea; lehentasunez, Gipuzkoan desgaitasun intelektuala dutenei. 240 milioi eurotik gorako negozio bolumena du, eta gaur egun 6.000 lagun inguru ditu; horietatik %82k dute desgaitasun motaren bat.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)